

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Behin betiko onartzea 2017ko aurrekontu orokorra

Ez da inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu toki sektore publikoko 2017ko aurrekontu orokorrari hasierako onarpena ematen dion erabakiaren aurka. Beraz, otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatu-takoarekin bat etorri, aurrekontu hori behin betiko onartu da. Hona hemen kapituluka laburtuta.

2017ko ekitaldirako aurrekontu orokorra

Gastuen egoera

KAPITULUA	ZENBATEKOA EUROTAN
I. Langile gastuak	323.375,00
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	538.989,96
III. Finantza gastuak	500,00
IV. Transferentzia arruntak	169.282,00
V. Kreditu orokorra	66.563,04
VI. Inbertsio errealak	473.700,00
VII. Kapital transferentziak	2.000,00
VIII. Finantza-aktiboak	0,00
IX. Finantza-pasiboak	0,00
Gastuak, guztira	1.574.410,00

Diru sarreren egoera

KAPITULUA	ZENBATEKOA EUROTAN
I. Zuzeneko zergak	290.500,00
II. Zeharkako zergak	15.000,00
III. Tasak eta bestelako diru sarrerak	45.410,00
IV. Transferentzia arruntak	737.750,00
V. Ondare bidezko diru sarrerak	16.250,00
VI. Inbertsio errealak besterentzea	0,00
VII. Kapital transferentziak	469.500,00
VIII. Finantza-aktiboak	0,00
XI. Finantza-pasiboak	0,00
Diru sarrerak, guztira	1.574.410,00

Iragarki honekin batera erakunde honetako lanpostu zerrenda argitaratzen da I. eranskinean, 6/1989 Legeak, euskal funtzio publikoarenak, 16. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri.

Toki sektore publiko honetako aurrekontu orokorra behin betiko onartzen duen erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. Horretarako, bi hilabete izango dira iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

I. ERANSKINA**KARRERAKO FUNTZIONARIOAK**

– Lanpostuaren izena: idazkari kontuhartzailea. Eskala: gaikuntza nazionaleko funtzionarioak. Azpieskala: idazkari-kontuhartzailea; Kopurua: 1. Administrazio egoera: beteta; Taldea: A 1; destino-osagarria: 26. Dedikazioa: osoa; Hizkuntza eskakizuna: 3, derrigortasun datarik gabe; Titulazioa: Zuzenbideko, Politika eta Administrazio Zientzietako, Soziologiako, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako, edo Ekonomia edo Aktuariotza eta Finantza Zientzietako lizentziaduna. Betetzeko era: lehiaketa. Destinoa: udaletxea.

– Lanpostuaren izena: Administraria. Eskala: Administrazio Orokorra. Azpieskala: administrariak. Kopurua: 1. Administrazio egoera: aktiboan; Taldea: C 1; destino-osagarria: 22. Dedikazioa: osoa. Hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun datarik gabe. Titulazioa: goi mailako Batxilergoa edo titulazio tekniko baliokidea. Betetzeko era: oposizio-lehiaketa. Destinoa: udaletxea.

– Lanpostuaren izena: administrari laguntzailea (zenbait eginkizun). Eskala: Administrazio Orokorra. Azpieskala: laguntzaileak; Kopurua: 1. Administrazio egoera: aktiboan; Taldea: C 2. Destino-osagarria: 18. Dedikazioa: osoa; Hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun datarik gabe. Titulazioa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduduna edo baliokidea; Betetzeko era: oposizio-lehiaketa. Destinoa: udaletxea.

– Lanpostuaren izena: liburutegiko arduraduna; Kopurua: 1. Administrazio egoera: aktiboan; Taldea: C 2. Destino-osagarria: 18. Dedikazioa: partziala (ehuneko 50); Hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun datarik gabe. Titulazioa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduduna edo baliokidea; Betetzeko era: oposizio-lehiaketa. Destinoa: liburutegia.

Santikurutze Kanpezu, 2017ko urtarrilaren 11

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO